**Kontzertua** — Concierto

# EGITARAUA / PROGRAMA

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoa** /
Orquesta Sinfónica de Euskadi

**Zuzendaria** / Director
Arturo Tamayo

---

**1. Peio Çabalette, 1961**
Negu Izpiak, 2013-14*
Musique de neige et d'oiseaux

---

**2. Pascal Gaigne, 1958**
Hypnos Variation, 2014*

---

**3. Félix Ibarrondo, 1943**
… Baña Nik, 2013*

Easo Eskolaniako tipleak

---

**4. Mikel Laboa, 1934-2008**
**Orkestrazioa Ramón Lazkano***
Gernika – Lekeitio 4, (1972/2013)

---

*<u>*Erabateko estreinaldia*</u>
**Obra guztiak Mikel Laboa katedraren enkarguak dira.**

*<u>*Estreno absoluto*</u>
Todas las obras se han escrito por encargo de la Cátedra Mikel Laboa.

---

**Kontzertu antolatzaileak** / Organizadores del concierto

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoa / Musikagileak - Euskal Herriko Musikagileen Elkartea**
Orquesta Sinfónica de Euskadi / Musikagileak - Asociación Vasco-Navarra de Compositores

**Zuzendaria** / Director
Arturo Tamayo

**Lekua** / Lugar
Sede de la Orquesta Sinfónica de Euskadi,
Paseo de Miramón 124 de Donostia

**Data** / Fecha
Abenduak 12 Diciembre – 20:00

**Sarrera doan aretoa bete arte** /
Entrada gratuita hasta completar el aforo

---

**Antolatzaileak** / Organizadores

EUSKADIKO ORKESTRA
MUSIKAGILEAK

---

**Babesleak** / Patrocinadores

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA
fundación sgae fundazioa
Gipuzkoako Foru Aldundia
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea | Mikel Laboa Katedra

---

**Laguntzaileak** / Colaboradores

musikene
Eresbil
coro EASO abesbatza

Foto: Christine Erzsberg



Kontzertua — Concierto

# LABOARI OIHARTZUN: SOINU-DISTIRAK

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa,
Musikagileak - Euskal
Herriko Musikagileen Elkartea
eta Mikel Laboa Katedra

---

# Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

**Zuzendari titularra** / Director titular
Jun Märkl

---

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoak euskal interpretetzaileentzat akuilu eta beren lanaren zabalkuntzarako plataforma izateko ahaleginean tinko darrai. Gaur sorkuntza garaikideari heltzen dio berriz ere Musikagileak elkartearen bidez. Helburua, Mikel Laboa Katedraren (EHU) Laboari Oihartzun egitasmoa gauzatzea da, musikagileak musika garaikidearekiko izandako lotura islatu asmoz.**
**Euskadiko Orkestra Sinfonikoak tinko eusten dio musika sinfonikoa zabaldu eta euskal musikari arreta berezia eskaintzearen bere bokazioari. Horretarako jada errotuta dagoen ongi egituratutako jarduera burutzen du. Kontzertu-ziklo iraunkorrak ditu Bilbo (Euskalduna Jauregia), Gasteiz (Principal Antzokia), Donostia (Kursaal Auditorioa) eta Iruñean (Baluarte Auditorioa). Gainera, beste bi ziklo antolatzen ditu, ganbera musikaren ingurukoa bata eta haur eta familiarteko publikoari zuzendutakoa bestea. Eta horretaz gain, euskal konpositoreen ekoizpen sinfonikoan arreta berezia jartzen duen jarduera diskografiko eskerga burutzen du halaber. Jarduera guzti hau Orkestraren Miramongo egoitzan, duela 25 urte eraikitako espazio berezian diseinatu, planifikatu eta garatzen da. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa erreferentziazko orkestra da gaur, bai erkidego mailan, denboraldiro 150.000 entzule biltzen baititu, eta baita estatu mailan ere, bere kontzertu-zikloetan abonatu diren 7000 pertsonei esker.**



---

# Arturo Tamayo



---

Estudia en el Conservatorio de Música de Madrid y dirección de orquesta con Pierre Boulez en Basilea, Francis Travis en Freiburg, Witold Rowicki en Viena; composición con Wolfgang Fortner y Klaus Huber en Freiburg. 1979/1998: profesor de Interpretación de Música del Siglo XX en la Escuela Superior de Música de Freiburg. Cuenta en su haber estrenos mundiales de compositores como Iannis Xenakis, John Cage, Franco Donatoni, Brian Ferneyhough, Wolfgang Rihm .... y ha colaborado con solistas como Plácido Domingo, Teresa Berganza, Jessie Norman, Dietrich Fischer-Dieskau, Alicia de Larrocha, Aldo Ciccolini, Frank Peter Zimmermann, Vadim Repin, siendo invitado regular de los más importantes Festivales europeos (Salzburger Festspiele, Luzerner Festspiele, Wien Modern, Biennale de Venezia, Holland Festival...). Dirige las más importantes orquestas europeas y la casi totalidad de las orquestas españolas. Como director de ópera se ha presentado en importantes teatros, como la Deutsche Oper de Berlin, la Wiener Staatsoper, el Covent Garden de Londres, la Opera de Paris-Palais Garnier. Le ha sido concedido el "Deutsche Schallplattenpreis" por sus grabaciones discográficas de la obra de Iannis Xenakis. Es Académico de la Real Academia de Bellas Artes de Granada y Premio Nacional de Música 2002.

---

# Easo Eskolania



---

**1992an sortua, Easo Eskolaniak kalitate handia lortu du interpretazioari dagokionez, eta horri esker, hainbat jaialditan parte hartzeko aukera izan du: Bordeleko De Vive Voix, Musika Hamabostaldia, Santanderreko Nazioarteko Jaialdia, Parisko Festival d'Art Sacré de la Ville, eta baita ABAO, BOS eta OSEren denboraldietan ere. Antzinako musikan espezializatutako taldeekin lan egiteaz gain, hainbat opera ere interpretatu ditu, hala nola "Carmen", "Txirula magikoa", "La Bohème", "Tosca" eta "La Gioconda"; era horretara, maila handiko musikariekin jardun du, besteak beste, D. Graves, K. Streit, R. Pape, R. Scandiuzzi, M. Freni, N. Ghiaurov, D. Croft eta G. Casollarekin. Eremu sinfoniko-koralean, azpimarratu beharra dago F. Ibarrondoren "Zuk zer duzu?" lanaren estreinaldia Musika Hamabostaldian, eta Mahlerren "8. Sinfonia", Galiziako Sinfonikoarekin, beste hainbaten artean.**
**Gaurko kontzertu honetan, Easo Eskolaniako zenbait haurrek Félix Ibarrondoren ... Baña Nik lanean hartuko dute parte.**